

FUNTSEZKO ALIANTZAK

Hasteko, gure helburuak zehaztu behar ditugu. Horiek kontuan hartuta erabaki dezakegu nolako aliantza estrategiko lortu ditzakegu: gure interesetara moldatuko direnak, merkatu berrietara sartzeko, arriskuak saihesteko, teknologia aprobetxatzeko, berrikuntzak azalertzeko, ...

Gure misio edo zeregina gizartearen pentsamendua aldatzea eta gizarte ekologiko bat sortzea da. Gure planetaren egoera gerok eta larriagoa baita eta beste bide bat bilatu behar dugu gure planeta salbatzeko. Orduan, gure webgunean salduko ditugun produktuekin lortu nahi duguna energia berriztagarria erabiltzea da. Hau da, bizi ohituretara moldatuta energia berriztagarria sortzea edo energia ez desprobatzea. Adibidez, futboleko baloi batek sortzen duen energiarekin mugikor baten bateria kargatzea. Edota, dutxatzen garenean ur kantitate handia erortzen da hoditeriara eta hori baliatuz, urak eragiten duen energia erabili etxeko argia edo berogailuak funtzionatzeko.

Gure benetako helburua, epe luzerako helburua, nazioartekoa bihurtzea izango litzateke. Hau da, merkatua zabaltzea beste kontinentetara. Eta gure azpi-helburua, Espainian, Frantzia eta Portugalen merkatu kuota %5 izatea izango litzateke.

Gure helburuarekin bat egiten duten enpresak, honako hauek dira:

Neste enpresak, erregaia ekoiztera arduratzen da. Bere estrategia iturri garbietatik onarpenak eskuratzea da, ikatzaren arrastoa gutxitzeko. Erregai berriztagarri eta material biologikoetan da espezializatua, gasen isuria %80a murriztea lortu arte.

Valeo enpresak teknologia hornitzaileak eta sektore auto-eragilearentzat ekipamendua ekoizteaz arduratzen da. Bere helburua, teknologia berritzea da ibilgailuen gidatze intuitiboarentzako eta ingurunearen zainketaarentzat. Karbono murriztua emititzen duten ibilgailuen fabrikazioan kooperatzen du.

Beste enpresa askorekin ere lan egingo dugu, azken finean, beste enpresek beraien produktuak gure webgunean jarriko dituzte, beraien eta gure arteko aliantzen ondorioz. Banaketarako, segurtasunerako eta beste zenbait ekintzetarako ere beste enpresa askorekin ere aliantzak sortu beharko ditugu, edo gutxienez kontratatu.

